



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Administrazio Bereziko Eskalako azpieskala teknikoko goi mailako Teknikari plaza hornitzeko hautaketa prozedura arautuko duten oinarriak. Akats Zuzenketa.

Akats materialak atzeman dira Bermeoko Udalaren 2024ko maiatzaren 2ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (84. zenbakia) argitaratutako iragarkian, Administrazio Bereziko Azpieskala Teknikoko goi-mailako teknikari plaza bat betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriari buruzkoan. Hori dela eta, iragarki hau osorik idatzi behar da:

Administrazio Bereziko Eskalako azpieskala teknikoko goi mailako Teknikari plaza hornitzeko hautaketa prozedura arautuko duten oinarriak.

Iragarkia, Bermeoko Udalarena, Administrazio Bereziko azpieskala teknikoko goi mailako teknikari plaza bat betetzeko hautaketa prozesuaren oinarriak.

2024ko apirilaren 10eko 1570 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, honakoa xedatu da:

Lehenengoa: Bermeoko Udaleko ez ohiko lan eskaintza publikoan eskainitako goi mailako teknikari (informatikaria) plaza hornitu ahal izateko, I. eranskinean agertzen diren oinarri espezifikoak onartzea.

Bigarrena: Oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bermeon, 2024ko maiatzaren 7an.—Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly

**BERMEOKO UDALEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA
TEKNIKOKO GOI MAILAKO TEKNIKARI PLAZA HORNITZEKO
HAUTAKETA PROZEDURA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK****Lehenengoa. — Oinarrien helburua**

1. Oinarri hauen helburua honako hau da: txanda irekian eta lehiaketa- oposaketaren bidez, Bermeoko Udaleko Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoko Goi mailako teknikari plaza hornitzea eta lan poltsa eratzea.

Lanpostua A1 sailkapen-taldekoa da, Bermeoko Udaleko plantilla organikoaren eta lanpostuen zerrendakoa.

2. Oinarri horiek arauz ezarritakoaren baldintzapean daude eta, batez ere, honako hauek ezarritakoaren baldintzapean: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Sarreren, Lanpostuen Hornidurearen eta Lanbide Sustapenaren gaineko Araudi Orokorra ontzat eman zuen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua, Toki Administrazioen hautaketa-prozedura arautzen duen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua, Toki Araubidearen gaineko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideari buruz indarrean dauden legezko ebazpenen testu bateratua eta horren osteko aldaketak ontzat eman zituen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea ere.

3. Deitutako lanpostuak nahitaezko 4. mailako hizkuntza-eskakizuna dauka. Hala ere, hautaketa prozesua gainditzen dutenetik inork ez badu 4. mailako hizkuntza-eskakizuna ziurtatzen, lehiaketa-oposaketan puntuazio gehien lortzen duen eta 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea duen hautagaia proposatuko da.

4. Lanpostuaren egiteko nagusiak, ondoren zerrendatzen direnak lirateke:

- Udaleko zerbitzari, centralita, eta sareko funtzionamendu egokia ziurtatzea. Windows eta AS400 zerbitzarien egoera zaindu, udaleko datuen segurtasun kopiak egiten diren konprobatu eta sarearen egoera zuzena den ikusi.
- Informatikarekin zerikusia daukaten eta eskatzen zaizkion lanak planifikatu, koordinatu eta exekutatu. Aldundiarekin, bankuekin eta datuak prozesatzeko zentruak dituzten gainontzeko enteekin harreman informatikoen ardura izango du.
- Udalaren beharrian teknikoak aurreikusi eta beharrian horien konponbidea proposatzea.
- Informatikako beharren inguruan aholkularitza lanak egin, lortu beharreko helburuak zeintzuk izan behar duten proposatu eta hardware eta software egokienak eskuratu ditzaten gomendatu.
- Informatikako aplikazio berriak bultzatu edo daudenak berritu, udalaren jarduera eraginkorragoa izan dadin.
- Teknologia berriekin erlazioa duten proiektuen kudeaketa eta parte-hartzea.
- Aplikazioen analisi, garapen eta ezarpena, erabiltzaileen beharretara egokituz, haiei laguntza eta formakuntza emanez eta beharrezkoa balitz neurrira eginiko aplikazioak sortuz.
- Udalean erabiltzen diren aplikazio guztiak nola erabiltzen diren jakin.
- Udaleko langileek erabiltzen duten tresneria informatikoaren funtzionamendua egokia dela ziurtatzea.
- Erabiltzaileei laguntza eman ekipoak eta programak erabiltzerakoan, sortu daitezkeen arazoak konpondu eta beharrezkoa denean dagokion mantenimendu tekniko zerbitzuari deitu.
- Informatikari buruz sortu daitezkeen eskaera guztiak jaso.



- Udaleko sistema informatikoa kontrolatu, izakinetan zein segurtasunari dagokionean.
- Informatikako ezagutzak egunean izan, udalean aplikatu ahal izateko.
- Agintzen zaizkion eta bere kategoriarekin zerikusia daukaten gainontzeko egin-beharrak.

Bigarrena. — Hautagaien betekizunak

Hautagaiak betekizun guzti-guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko adierazitako epea amaitzen den egunean. Hauek dira onartua izateko eta, horrela deanean, lehiaketan parte hartzeko beharrezko betekizunak:

1. Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango dute, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideek, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.
2. 16 urte beteta izatea, beste adin muga bereziren bat eskatzen den prozesuen kalte barik, eta edozein kasuan, nahitaezko erretirorako gehienezko adina ez gainditzea.
3. Gradua, lizentziatura edo baliokidea ingeniari-tza informatikoan.
4. Deitutako lanpostuak nahitaezko 4. mailako hizkuntza-eskakizuna dauka. Baldintza hau, Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzen dituen Dekretuan eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitze 64/2008 Dekretua aldatzen duen 48/2009 Dekretuko 1go. artikuluan ezarritako ziurtagiriak aurkeztuz kreditatu beharko da. Halaber, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuetsiko dira.

Hautaketa prozesua gainditzen dutenetik inork ez badu 4. mailako hizkuntza-eskakizuna ziurtatzen, oposizio eta lehiaketa-fasean puntuazio gehien lortzen duen eta 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea duen hautagaia proposatuko da, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren arabera.

5. Tasak: Bermeoko Udalaren indarreko ordenantza fiskalak ezarritako azterketa-eskubideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan. 20 eurokoak izango dira, Agiriak emateagatik ordaindu beharreko arautzen duen 2024ko Ordenantza fiskalaren arabera.

Lanpostuetarako deialdietan azterketara aurkeztu ahal izateko zeintzuk baldintzak bete behar diren guztiz zehaztuta dagoenez gero eta izena ematean tasa sortzen den ezker, aurkezten denak betetzen dituela ulertu behar da eta izena ematean tasa sortzen den ezker, Erregistro Orokorrean eskaria aurkezten den unean tasa ordaindu izanaren justifikazioa ere aurkeztu beharko da. Ostantzean eskaria ez da kontutan edukiko eta deialditik kanpo geratuko da hautagaia.

Behin izena emanda eta ordainduta, deialdiaren baldintzak betetzen ez dituelako azterketara ezin badu aurkeztu edo aurkeztera uko egiten badu, hautagaiak ordaindutako tasa ez da itzuliko.

Kopuru horren ordainketa modu hauetan egin daiteke:

- Ordainketa-pasabidearen bitartez, Bermeoko Udalaren web orriko lotura honetan: <https://egoitza.bermeokoudala.eus/> aukeratu Autokitapenak atala.
- Txartelaz, arreta zuzeneko berhaz bulegoan: Ertzilla kalea, 6-8.



- Dirutan, diru-bilketako bulegoan: Intxausti kalea, 2.
 - Banketxeetan.
 - 6. Lanpostuko zereginak normaltasunez egitea eragotziko duen gaixotasunik edo akats fisikorik zein psikikorik ez izatea. Baldintza hori betetzen dela Udaleko osasun zaintza zerbitzuak erabakiko du, komenigarri jotzen dituen azterketak aurretik eginda.
 - 7. Diziplinako espediente bidez edozein Administrazio Publikoko zerbitzutik baztertua ez izana, edota inhabilitazio absoluturik edo berezirik ez izatea enplegu eta kargu publikoetan aritzeko.
- Oinarri honetan zerrendatutako betekizun guzti horiek eskabideak aurkezteko azken egunean eduki beharko dira, eta karguaz jabetu arte mantendu.

Hirugarrena. — Eskabideak aurkeztea

Eskariak eredu ofizialean egin beharko dira. Eredu ofiziala Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoan ere eskuratu daiteke.

Eskariak aurkezteko bideak:

Online: <https://egoitza.bermeokoudala.eus/>

— Egoitzatik egiteko asistentzia behar izatekotan, deitu 010 telefonora (946179100 Bermeotik kanpo deitezkotan) hitzordu bidez Berhaz bulegoan laguntza eskaintzeko.

— Modu elektronikoan egitera behartuta ez dauden interesdunen kasuan:

Aurrez – Aurrekoa: Berhaz Bulegoan.

Ertzilla 6-8 Bermeo.

Ordutegia:

08:00-15:00: Astelehen, asteazken eta ostiraletan.

08:00 -14:00 eta 16:00-18:00: Astearte eta ostegunetan.

— Udan Goizez bakarrik

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduan.

Eskabidearekin batera, tasak ordaindu izanaren agiria, Hizkuntza Eskakizunaren agiria eta oinarri hauetan eskatutako titulua hogeitaz (20) egun baliodunen epean aurkeztu behar da, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Ondorio horietarako, domeka eta jaiegunez gain, zapatuak ere ez dira egun balioduntzat joko.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dela hautaketa-prozesuaren edozein unetan Udalaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko pertsonal sanitarioak beharrezkoa den gaitasun funtzionala ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen kontrol edo azterketak egiteko.

Prozesuaren amaieran, prozesua gainditu eta plaza eskuratu ez duten hautagaiekin informatikako ingeniari lan poltsa eratuko da. Hori horrela, hautagaiek, eskabidean adierazi beharko dute datu hauek administrazio publikoko beste erakunde batzuei lagatzeko aurka dauden: Izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefono mugikorra, helbide elektronikoa eta prestakuntza maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan eskaintzak legezko baldintzetan egin ahal izatea. Aurkako iritzia ez bada beren-beregi ematen, baimena ematen dela ulertuko da.

Laugarrena. — Izangaiak onartzea

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, Bermeoko Udaleko korporazioko presidentek deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda ontzat emango du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta udalaren iragarki oholean ipiniko da. Modu berean, adieraziko da 10 egun balioduneko epean hautagaiek



egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituztela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan adierazitakoaren arabera.

2. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ostean, udaleko korporazioko presidentek deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-betiko zerrenda ontzat emango du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta erakundearen iragarki-oholean ipiniko da. Behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da, baldin eta erreklamaziorik ez badago, zerrenda hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko bada ere.

3. Egindako erreklamazioei buruzko ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsua jarri daiteke alkatearen aurrean, hilabeteko epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Bosgarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

1. Proben Epaimahai Kalifikatzailea hauen arabera eratuko da: 5/2015 Legegintza-ko Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; Toki Administrazioaren funtzionarioak hautatzeko prozeduren oinarrizko araudiak eta gutxieneko programak ontzat eman dituen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua; Euskal Enplegu Publikoaren gaineko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikulua; Administrazioaren zerbitzupeko langileen sarrerari buruzko Araudi Nagusia onartu zuen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua; eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua.

2. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta deialdian ezarritako kopuruaren arabera kideek osatuko dute eta, gutxienez, bost kide egongo dira.

3. Botoa emateko eskubidea duten epaimahaikide guztiek deialdian parte hartze-ko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa izan behar dute, eta epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez, hautaprobetako jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute. Modu berean, epaimahaiaren eraketari dagokionez, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen 20. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

4. Oinarri hauetan zehazten ez den zerbait gertatuz gero, epaimahaiak hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko eta dagozkion eginkizunak betetzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu, eta oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebartziko ditu, besteak beste, oposizio fasean aurreikusten diren ariketen hurrenkera. Baliozko eran jarduteko, kideen gehiengoa, titularrak edo ordezkioak, bertaratu behar-ko dira, eta beraien artean nahitaez izan behar-ko dira epaimahaiburua eta idazkaria. Epaimahaiak jakinarazpenak egiteko eta gertakarien berri emateko, Bermeoko Udalean izango du egoitza. Epaimahaiaren erabakien aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke alkate-udalburuaren aurrean; horretarako epea ebazpenean bertan ezarriko da eta iragarki-taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatu behar da.

5. Epaimahaikideek, batzar bakoitzeko, Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan aurreikusitako ordainsariak eskuratzeko eskubidea izango dute.

6. Epaimahaiak aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu, hautaketa-prozesuaren proba guztietarako edo baten baterako. Aholkulariok beraien espezialitate teknikorak mugatu behar-ko dute bere jarduerak, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

7. Epaimahaiak izango dituzten titular eta ordezkioen izen-deiturak lehenengo azterketaren data, lekua eta ordua erabakitzen duen egintzarekin bat jakinaraziko dira. Epaimahaikideak ezetsi egin daitezke, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitakoa gertatzen bada.

8. Epaimahaiaren jarduteko prozedura Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeari egokituko zaio une guztietan. Epaimahaiko kide guztiak hitza eta botoa izango



dituzte, idazkariak izan ezik; hark hitza izango du baina botorik ez. Botoen gehiengoarekin hartuko dira epaimahaiaren erabakiak. Berdinketarik egonez gero, epai mahaiburua-ren botoak ebatziko du.

9. Epaimahaiak, hala badagokio, probak egiteko eskatutako moldaketei buruz ere ebatziko du, eskatutako moldaketa aztertu eta baloratu ondoren. Eskatutakoari buruz zailantzarik egonez gero, interesdunari entzun ahal izango zaio, bai eta aholkularitza eskatu ere, eta, hala badagokio, organo tekniko eskudunen laguntza eskatu.

Seigarrena. — Hautaketa-prozedura

Hautaketa-prozedura lehiaketa-oposaketa izango da.

1. Oposaketa-fasea

Oposizio-fasean gehienez ere 70 puntu lortu ahal dira.

Oposizio-faseak lau ariketa izango ditu eta guztiak nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira. Epaimahai Kalifikatzaileak ariketen ordena aldatu ahal izango du, eta ariketa bakoitza egiteko eguna, lekua eta ordua 72 ordu lehenago iragarriko du, gutxienez, Bermeoko Udaleko webgunean eta iragarki taulan.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprobatik baztertuta geratuko dira eta ezingo dute ez ariketa hori ez hurrengorik egin, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta Epaimahai Kalifikatzaileak halakotzat jotzen dituztenetan izan ezik. Arau bera aplikatuko da nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean. Ariketak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

Izangai bakoitzak eskabide orrian adierazi beharko du ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituen.

Epaimahai Kalifikatzaileak edozein unetan eskatu ahal die hautagaiei identifikatzeko; hori dela eta, ariketa guztietara eraman behar da nortasun-agiria edo Epaimahai Kalifikatzaileak identifikatzeko egokitzen duen beste edozein agiri (pasaporte, gidabaimena, Atzeritarren Nortasun Zenbakia...).

Oposizio faseko ariketa bat amaitu eta hurrengo hasteko gutxienezko epea 72 ordukoa

izango da eta gehienekoa 60 egunekoa. Hala ere, Epaimahai Kalifikatzaileak saio bakarrean ariketa bat baino gehiago batera egitea erabaki dezake, egoki irizten badiu.

Ariketa bakoitzaren ostean Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta izangaiak bost egun balioduneko epea izango dute egoki deritzen alegazioak aurkezteko. Edonola ere, kasu bakoitzean egindako idatzizko ariketa aipatu epearen lehen hiru egunetan eskatu beharko dira, eta eskaera hori egiteak ez du bost egun balioduneko epea inolaz ere etengo. Alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin behineko emaitzak behin betiko bihurtuko dira automatikoki. Edozein modutan, Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin betiko emaitzen inguruko ebazpena argitaratuko du.

Epaimahaiak proba bakoitzerako oposiziogile bakoitzaren anonimatua eta konfidentzialtasuna bermatzeko metodorik egokiena zein den baloratuko du, eta metodo hori aplikatzeko neurriak hartuko ditu, bai proba egiterakoan, bai zuzentzerakoan.

Lehen ariketa: Ezagutza teorikoen proba, nahitaezkoa eta baztertzaila

Bi zati izango ditu:

- A zatia: test-erako galdera-sorta bati erantzun beharko zaio, erantzun anizkoitzekin, eta horietako bat zuzena izango da, gai-zerrenda orokorrekarekin lotuta. Epaimahaiaren irizpidearen arabera geratuko da galdera-kopurua finkatzea, probaren iraupena eta abar. Ariketa hau 10 punturen gainean baloratuko da, eta hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak. Zuzenak ez diren erantzunak hiruren bat kenduko diete erantzun zuzenei.



- B zatia: epaimahai kalifikatzaileak prestatutako galderei eta/edo gaiari idatziz erantzutea, horretarako ezartzen den denboran, eta gai-zerrenda espezifikoa buruz. Epaimahaiak erabakiko du zenbat galdera eta gai egingo diren, probaren iraupena eta abar. Gehienez 10 puntu emango dira, eta gainditzeko gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

Dena den, probara aurkeztutako izangaien %50a lehenengo ariketa gainditzeko gutxienezko puntuaziora iritsiko ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa gainditzeko gutxienezko puntuazioa egokitu ahal izango du, gaindituen portzentaje hori lortu arte.

Bigarren ariketa: Ezagutza praktikoen proba. Nahitaezkoa eta baztertzaila

Idatziz egin beharko da, epaimahaiak zehaztutako denboran. Epaimahaiak azterketa hasi aurretik lanpostuko eginkizunekin edota eranskinen gai-zerrenda espezifikoko arloekin zerikusia daukaten bi gai aukeratuko ditu hautagaiek garatzeko. Azterketaren bestelako baldintzak eta ezaugarriak epaimahaiak erabakiko ditu.

Ariketa horretan arrazoiketarako gaitasuna, planteamenduaren sistematika eta ondorioen formulazioa, arazoak konpontzeko gaitasuna, aukera ezberdinen artean erabakitzeko gaitasuna eta presioaren aurrean jarduteko gaitasuna baloratuko dira, batez ere.

Ariketa hori gehienez 40 punturen gainean kalifikatuko da, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Dena den, probara aurkeztutako izangaien %50a bigarren ariketa gainditzeko gutxienezko puntuaziora iritsiko ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa gainditzeko gutxienezko puntuazioa egokitu ahal izango du, gaindituen portzentaje hori lortu arte.

Hirugarren ariketa: Proba psikoteknikoak.

Froga honen bidez beteko den plaza zehatzaren funtzio eta zereginak modu egokian garatzeko beharrezkoak diren gaitasun eta trebetasunak neurtuko dira: estresari aurre egiteko gaitasuna, taldean lan egiteko gaitasuna, aldaketei aurre egiteko gaitasuna eta arazoei irtenbidea emateko gaitasuna eta esperientzia, besteak beste.

Ondorio hauetarako, Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du zer motatako proba edo probak egingo diren (testak, kontraste elkarriketak, talde dinamika, rol probak, elkarriketak edo bestelako probak). Ariketa elkarriketa batekin osatu ahal izango da, beti ere elkarriketa horren helburua ariketaren emaitzak egiaztatzea bada.

Elkarriketa egin ezker, grabatu egingo dira eta prozesu honetan parte hartze hutsak, hautagaiek grabaketa horiek egitea onartzen dutela ulertuko da.

Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da izangai guztientzat.

Jarrera-probak egingo dira izangaiak lanpostuari dagokion profil teknikoarekin egokitzen diren ebaluatzeko. Proba horiek gehienez 10 punturen gainean kalifikatuko dira. Ez gai diren kasuan, kontraste froga egiteko aukera egongo da.

Epaimahai kalifikatzaileak erabakiko du zein izango den proba hau gainditzeko gutxienez lortu beharreko puntuazioa.

Epaimahai kalifikatzaileak egoki baderitzo, kanpo adituen bidez egin ahal izango da ariketa.

Laugarren ariketa: Euskara. Nahitaezkoa eta baztertzaila izangai guztientzat

Deialdiko lanpostuari 4. hizkuntza eskakizuna esleitu zaio; beraz, euskararen hizkuntza eskakizun hori eduki behar da lehiaketan parte hartu ahal izateko. Euskararen ezagutza maila euskarako proba gaindituta egiaztatuko da, eta proba hori Gai edo Ez Gai joko da.

Nolanahi ere, euskarako probaren lehen ariketa egiten den aurreko egunera arte, izangaiek aipatu hizkuntza eskakizuna beste bide batzuetatik ziurtatu ahal izango dute. Epaimahai Kalifikatzaileak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ofizioski kontsultatuko ditu izangaiek alegatutako hizkuntza-eskakizunak. Honako baldintzaren bat bete beharko da laugarren ariketa egiteko salbuesteko:



- 4. hizkuntza eskakizuna lortua izatea, edo eskakizun horrekin baliokidetutako titulu edo egiaztagiri bat izatea, 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, xedatutakoari jarraituz (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekidetzeko dena).
- Kasuan kasuko baliokidetza eskuratua izatea, hain zuen ere euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko den apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren indarrez.

4. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria ez dutenen kasuan, prozesuaren beste fase bat izango da hori egiaztatzeko probak egitea. Epaimahai Kalifikatzaileak aditzera eman du hautaketa-prozesuko zein unetan egingo den euskarako proba, horretarako deialdi bakarra eginez.

4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egingo dira. Oposizio faseko gainerako hiru ariketak gainditzen dituzten izangaietatik bakar batek ere ez badu 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen, prozesua puntuazio handienarekin gainditu duen eta 3. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu duen izangaiak beteko du lanpostua.

Oposizioko azterketak amaitu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera ezarriko du, puntuazioaren arabera, oposaketaren lau ariketak batuta.

2. *Lehiaketa fasea*

Lehiaketa fasean izangaiek eskabideak aurkezteko epean berriaz alegatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eta bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituko zaizkio. Hautagai bakoitzak alegatutako merezimenduek Epaimahai Kalifikatzailea lotzen dute, eta merezimendu horiek soilik baloratu ahal izango ditu Epaimahaiak. Eskabide orriak aurkezteko azken eguna arteko merezimenduak besterik ez dira balioetsiko. Dena dela ere, euskarari dagokionez, Epaimahai Kalifikatzaileak lehiaketa faseari ekin ahal izango dio euskara-proba egin edo emaitzak jakin aurretik. Kasu horretan, oposizio faseko gainontzeko lau ariketak gainditu dituzten izangai guztiek beren merezimenduak egiaztatu beharko dituzte, eta oraindik 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez dutenek kautelaz egin beharko dute.

Lehiaketa fasea ez da baztertzaileria izango, eta ezin izango da kontuan hartu oposizio-faseko ariketak gainditzeko.

Oposizio fasea gainditu duten izangaiei bost egun balioduneko epea emango zaie eskaera orriak aurkezterakoan alegatutako merezimenduen ziurtagiriak aurkezteko. Eskaera orrian alegatutako merezimenduen erlazioa hartuko da kontuan, eta izangaiek ezingo dituzte merezimendu gehiago txertatu.

Jarritako epean behar bezala alegatu eta egiaztatu gabeko merezimenduak ez dira inolaz ere baloratuko. Dagokion baremoaren arabera merezimenduak baloratzeko izan behar diren datuak ez dituzten dokumentuak ere ez dira baloratuko. Merezimendu horiek Bermeoko Udaleko izangaiaren espediente pertsonalean jasota badaude, ez da egiaztatu beharrik izango. Izangai bakoitzaren zeregina da bere espediente pertsonaleko edukia aztertzea eta eskaera orrian adieraziko dituen merezimenduak egiaztatzeko dokumentuak bertan jasota daudela ziurtatzea. Ondorio horietarako, Bermeoko Udaleko langileen espedientetzat hartzen da Bermeoko Udalean lanean ari diren edo aritu diren pertsonen espedientea; hortaz, Bermeoko Udalean inoiz lan egin ez duten izangaiek ez dute espediente hori.

Hautaketa prozesutik baztertuta egon arren baztertze horren kontrako erreklamazioa aurkeztu duten eta horren gaineko behin betiko erabakiaren zain daudenek ere merezimenduak egiaztatu beharko dituzte, kautelazko neurri gisa.

Epaimahai Kalifikatzaileak merezimenduak balioetsiko ditu, eta lehiaketa faseko behin behineko emaitzak argitaratuko ditu. Kalifikazio horiekin batera, dokumentazioa zuzendu beharra duten izangaien zerrenda argitaratuko da, berriaz adierazita zein merezimenduren egiaztagiria zuzendu behar den. Argitaratu eta biharamunetik aurrera



zenbatzen hasita, izangaiek 10 egun baliouduneko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko eta beharrezkoak diren zuzenketak egiteko. Epe hori amaitutakoan, epaimahaiak aztertuko ditu aurkeztutako erreklamazioak eta zuzenketak, eta ondoren lehiaketa faseko behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

Lehiaketa faseko puntuazioa merezimenduen baremo honen arabera izango da:

Lehiaketa-fasean lor datekeen gehieneko puntuazioa, guztira 30 puntukoa izango da.

1. *Lan-esperientzia Administrazio Publikoan eta eremu pribatuan: 20 puntu gehienez*
 - Herri administrazioan A1 taldeko lanpostuetan edo antzekoetan emandako zerbitzuak, informatikari lanpostuan, gehienez ere 10 puntu, hileko 0,20 puntu.
 - Herri administrazioan A2 taldeko lanpostuetan edo antzekoetan emandako zerbitzuak, informatikari lanpostuan, gehienez 6 puntu, hileko 0,133 puntu.
 - Enpresa pribatuan eta/edo lanbidearen jardun librean emandako zerbitzuak, deitutako lanpostuaren eginkizunen eduki bera edo antzekoa duen lanpostu batean, gehienez 4 puntu, hileko 0,0833 puntu.

Emandako zerbitzuak baloratzeko baremoa aldi osoan emandako zerbitzuak kontuan hartutako hura izango da. Hala, lanaldi osotzat hartuko da hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik eszedentzia-egoeran egon den denbora; amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzen laguntzea xede duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora; eta baita genero-indarkeriagatik baimenak baliatu dituzten denbora ere. Lanaldi partzialeko gaintzeko kasuetan, puntuazioa lanaldiaren proportzio berean murriztuko da.

Bermeoko Udalean emandako zerbitzuak ofizioz egiaztatuko dira; betiere, behar bezala alegatzen badira. Aldiz, beste Administrazio Publiko batzuetan egindako lana organo eskudunaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. Ziurtagiri horretan alderdi hauek jasoko dira: betetako lanpostuaren izena eta ezaugarriak lanpostuaren zerrendaren arabera (saillkapen taldea, eskala, azpieskala, klasea, espezialitatea/kategoria), lanaldia, lanpostuaren eginkizunak eta zereginak, lan-harremana eta lan egindako epea.

Eremu pribatuan izandako esperientzia egiaztatzeko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako Lan Bizitzaren ziurtagiria eta enpresaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dira. Ziurtagiri horretan, alderdi hauek jasoko dira: lanpostuaren izena eta ezaugarriak, kategoria, eskatutako titulazioa, lanpostuaren eginkizunak eta zereginak, lan-harremana eta lan egindako epea. Azken ziurtagiri horren ordean, lan kontratuaren fotokopia edo, Epaimahai Kalifikatzailearen iritziz, egokiak diren agiriak aurkez daitezke.

2. *Titulu ofizialak: gehienez 5 puntu*

Bermeoko Udaleko Antolakuntza eta Teknologi Berrietako Goi Mailako Informatikari lanpostua betetzeko baliagarritasunaren arabera baloratuko dira.

Titulu ofizialak balioetsi ahal izateko, baremo hau hartuko da kontuan:

- Unibertsitateko graduondokoa edo masterra: puntu 2 tituluko.
- Doktoretza: puntu 3 tituluko.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko alegatutako titulazio akademikoa ez da kontutan izango lehiaketa fasean. Unibertsitate ikasketa bereko ziklo desberdinak gaudituta izatea egiaztatzen duten izangaiei egiaztatutako ziklo gorenekoari dagokion titulua bakarrik balioetsiko zaie.

3. *Ikastaroak, mintegiak eta prestakuntza osagarria: gehienez 5 puntu*

Azken bost urteetan egindako 10 ordutik gorako ikastaroak izan beharko dira eta Administrazio Publikoko eskola edo institutuek, Administrazio Publikoek, Unibertsitateek, Elkargo Profesionalek, Mutualitateek, Fundazioek, Elkarteek, Federazioek, erakunde publikoek edo itunduek emandakoak izan beharko dira. Gainera, lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusia izan beharko dute. Ikastaro bakoitza puntu batekin baloratuko da. Atal honetan gehienez 5 puntu lortu ahalko dira.



Epaimahai Kalifikatzaileak lehiaketa faseko behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute egoki deritzen alegazio eta erreklamazioak aurkezteko. Edonola ere, egindako merezimenduen balorazioaren xehe-tasuna aipatu epearen lehen hiru egunetan eskatu beharko da, eta eskaera hori egiteak ez du bost egun balioduneko aipatu epea inolaz ere etengo. Alegazio edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko emaitzak behin-betiko bihurtuko dira automatikoki.

Zazpigarrena. — Emaitzak argitaratzea

1. Epaimahaiak proben emaitzaren zerrenda argitaratuko du, guztira lortutako puntuazioen batuketaren arabera ordenan, eta proba bakoitzean lortutako puntuak adieraziko dituzte, bai eta azken puntuazioa ere.
2. Froga bakoitzaren emaitzak argitaratu ostean, gutxienez 5 eguneko epea ezarriko da azterketak berrikusi eta erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahaiburuari aurkeztu beharko zaizkio, idatziz, erregistro orokorrean, edo epaimahaiko idazkariaren aurrean; azken horrek modu ofizialean erregistratu beharko ditu.

Zortzigarrena. — Izendapen-proposamena

1. Epaimahai kalifikatzaileak, puntuazioei aurkeztutako erreklamazioak berrikusi ostean, izendapenerako proposamena egin eta argitaratuko du, ezingo izango baita gainditu eskainitako lanpostu-kopurua.

Azken kalifikazioa eskuratzeko oposizio faseko eta lehiaketa faseko puntuazioak batuko dira, eta horrek zehaztuko du hautagaien lehentasun hurrenkera.

2. Amaierako puntuazioan berdinketa egonez gero, b) ariketan (proba praktikoan) lortutako puntuazioaren ordena kontuan izango da.

Berdinketak jarraituz gero, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua), trebakuntza-berdintasuna badago, emakumei emango zaie lehentasuna emakumeen ordezkaritza % 40tik beherakoa den eskaletan, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak baditu, sexuagatiko bereizkeriak egiten ez dutenak, hala nola enplegua lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

3. Berdinketak jarraituko balu, zozketa bidez ezarriko da ordena.

Epaimahaiak lanpostura aurkeztu diren hautagaien lanpostuan jarduteko oinarriko baldintzak ez dituztela betetzen ikusten badu, lanpostua hutsik gelditu dela adierazi daiteke.

Bederatzigarrena. — Agiriak aurkeztea

Proposatutako izangaiak udalaren erregistroan aurkeztu beharko ditu deialdiaren oinarrietan hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzen egiaztagiriak, 20 egun baliodunen buruan, gaindituen zerrenda argitaratzen den egunetik aurrera zentzen hasita:

1. Kargu publikoak betetzeko gaitasuna dutela eta Herri administrazioaren zerbitzuetatik kanpo diziplinazko espedienteengatik geratu ez direla frogatzeko aitorpena.
2. Herri Administrazioen Zerbitzuetako Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunik ez daukala adierazten duen aitorpena.
3. Medikuziurtagiria, udalbatzak zehazten dituen zerbitzu medikoek emana, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena. Desgaitasuna duten izangaiek organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko gaitasuna eta izaera hori egiaztatzen dituenak.



4. Deialdiaren oinarrietan eskatutako gainerako berriarazko baldintzei buruzko frogagiriak.

Adierazitako dokumentuak aurkezteko ezintasuna behar bezala justifikatzekotan, hautagaiak deialdian eskatutako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ahalko du zuzenbidean onar daitekeen edozein frogaren bidez. Funtzionario publikoak edo lan-kontratuko langileak salbuetsita egongo dira aurreko izendapena lortzeko frogatutako baldintzak eta betekizunak agiri bidez justifikatuz, eta Ministerioaren, autonomia erkidegoko administrazioaren, toki-udalbatzaren edo haien mendeko erakunde publikoaren ziurtagarria aurkeztu beharko dute, haien egoera eta zerbitzu-orrian agertzen diren inguruabar guztiak egiaztatuz. Arestian aipatutako epean, ezinbesteko arrazoien kasuan izan ezik, proposatutako hautagaiak dokumentazioa aurkezten ez badu edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, ez da izendatuko eta jarduera guztiak baliorik gabe geldituko dira, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean azaldutako faltsukeriarengatik izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Hamargarrena. — Izendatzea eta karguaz jabetzea

10.1. Epaimahaiak egindako proposamena eta izangaiak aurkeztutako dokumentazioa ikusita, baldin eta oinarriek diotenarekin bat badatoz, Alkatetzak hautaketa-prozesua arrazoituta ebatziko du, eta, hala badagokio, gainditu duen izangaia praktiketako funtzionario gisa izendatuko da, praktika aldi bat baitu, 6 hilabetekoa, hain zuzen ere.

10.2. Izendapen ebazpenak lanpostuari atxikitzea ere jasoko du, eta behin-behineko izaera izango du, praktika aldia aurreikusten baita.

10.3. Praktiketako funtzionario izendatutako izangaiak hilabeteko epea izango du, izendapena Bizkaiko lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, legez ezarritako zina edo agintza egiteko eta udalbatzako idazkariaren aurrean karguaz jabetzeko. Zinik edo agintaritarik ez egiteak edo karguaz ez jabetzeak eskubide guztiak galtzea ekarriko du, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Hamaikagarrena. — Praktika aldia

11.1. Praktika aldi bat ezarriko da funtzionario lanpostuetarako. Kasu horretan, eta aldi horrek dirauen bitartean, praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak normaltasunez beteko ditu bere zereginak, eta ordainsariak negozioz kolektiboko indarreko tresnetan ezarritako aurreikuspenen arabera jasotzeko eskubidea izango du. Praktika aldia udal egoitza berean egingo da, Alkatetzak izendatutako karrerako funtzionario izango den pertsona baten (edo ebaluazio-batzorde baten) tutoretzapean.

11.2. Praktikaaldiaren iraupena hemen adierazten dena izango da, taldean eta azpitaldean edo eskalan eta azpieskalan sartzeko eskatzen den titulaziorako parekotzat jotzen den lanbide-talde edo -kategorien arabera:

- a) A taldea: 6 hilabete

11.3. Aldi horretan, tutore izendatuak (edo ebaluazio-batzordeak) ahalegina egin beharko du izangaiak prestakuntza praktikoa eskura dezan eta dagozkion funtzioak arian-arian bere gain har ditzan.

11.4. Aldi hori amaitutakoan, tutoreak (edo ebaluazio-batzordeak) txostena egingo du, eta bertan berriaraz adierazi beharko du izangaiek praktika aldia gainditu duten. Gainditzeko dutenak karrerako funtzionario izendatuko dira. Bestela, Udalburutzaren ebazpen arrazoitu bidez ez-gaitzat joko dira, alde aurreko entzunaldi-izapidearekin, tutorearen (edo ebaluazio-batzordearen) txostena ikusita, eta ondorioz, karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

11.5. Karrerako funtzionario izendapena lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta legez ezarritako beste edozein lekutan argitaratuko da.

**Hamabigarrena. — Lan-poltsa**

Hautaketa-prozesu honen emaitzaren ondorioz etorkizuneko beharrianak betetzeko lan-poltsa bat osatuko da, Bermeoko Udaleko Informatika teknikari lanpostuetarako:

- Lehen mailako poltsa: ariketa guztiak gainditu dutenekin eratuta. Lan poltsa horretan 4. Hizkuntza eskakizuna kreditatu duten pertsonak lehentasuna izango dute, ondoren, 3. hizkuntza eskakizuna kreditatu dutenak jasoko dira.
- Bigarren mailako poltsa: poltsa hori agortzen denerako, bigarren mailako bat sortuko da 1. ariketa soilik gainditu dutenekin. 4. Hizkuntza eskakizuna kreditatu duten pertsonak lehentasuna izango dute, ondoren, 3. hizkuntza eskakizuna kreditatu dutenak jasoko dira.

Hamairugarrena. — Aurkaratzeak

1. Gorabeherak. Oinarri hauetan ezarrita ez dagoen guztirako, epaimahaiak ahalmena dauka azaltzen diren zalantzak ebazteko eta lehiaketa-oposaketaren martxa egokirako behar diren erabakiak hartzeko.
2. Interesdunek, deialdi honen, haren oinarrien eta horietatik zein epaimahai kalifikatzailearen jardueratik ondorioztatzen diren administrazio-ekintzen aurka egin ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Hamalugarrena. — Datu pertsonalen babesa

Udalak, prozesu honen baitan jasotako datu pertsonalen tratamendua, PERTSONEN Kudeaketarako onarturik duen Tratamendu Jardueren Erregistroan xedatutakoaren arabera egingo du, 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoak, 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko Euskal bulego sortzeari buruzkoak eta 2016ko apirilaren 27ko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europar Batasuneko 2016/679 Erregelamenduak, agindutakoa beteta.



ERANSKINA

GAI-ZERRENDA

ZATI OROKORRA

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak. 14. artikulutik 38. artikulura.
2. gaia: Estatutuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko eskumenen banaketa. Eskumenen banaketa Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutan.
3. gaia: Eusko Legebiltzarra: Osaketa eta funtzionamendua. Lege autonomikoak. Lege-dekretuak eta legegintzako dekretuak. Legeak egiteko prozesua. Legegintzako ekimena. Legegintzako ahalmenaren mugak.
4. gaia: Eusko Jaurlaritza. Ekainaren 30eko 7/1981 Legea. Lehendakaria. Izendapena eta eskumenak. Bere estatutu pertsonala.
5. gaia: Eusko Jaurlaritza: Ekainaren 30eko 7/1981 Legea. Osaketa, eskumenak eta funtzionamendua.
6. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarrizko arautzen dituen, I. titulua. Xedapen Orokorrak. 1. artikulutik 9. artikulura.
7. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarrizko arautzen dituen, II. titulua. I. kapitulua. Udalerria. Udal mugartea eta biztanleria. 11. Artikulutik 18. Artikulura.
8. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarrizko arautzen dituen, II. titulua, II. kapitulua. Udal antolaketa. Alkatea, udalbatza, zinegotziak, tokiko gobernu-batzarra, informazio-batzordeak, eskuordetako eskumenak, antolaketa-egitura, udal-taldeak eta alderdi politikoak. 19. Artikulutik 24 bis artikulura.
9. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarrizko arautzen dituen, V. titulua. Toki erakundeei buruzko xedapen orokorrak. 46. artikulutik 78. artikulura.
10. gaia: 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. III. titulua. Udal eskumenak. 14. artikulutik 24. artikulura.
11. gaia: 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. IV. titulua. I. kapitulua: Udalaren antolaketa eta funtzionamendua. 25. artikulutik 42. artikulura.
12. gaia: 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. V. titulua. I. eta II. Kapituluak: udalerriko auzotarren betebeharrak eta eskubideak. Gobernu irekia: zerbitzu-kartak.
13. gaia: 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen. I. titulua. Prozeduran Interesdun direnak. 3. artikulutik 12. artikulura.
14. gaia: 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen. II. titulua. Administrazio publikoen jardura. 13. artikulutik 33. artikulura.
15. gaia: 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen. III. titulua. Administrazio-egintzak. 34. artikulutik 52. artikulura.
16. gaia: 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen. IV. titulua. Administrazio-prozedura erkideari buruzko 53. artikulutik 105. artikulura.
17. gaia: 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen. V. titulua. Egintzak administrazio bidetik berrikustea. 106. artikulutik 126. artikulura.
18. gaia: 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren V. Kapituluak. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa.
19. gaia: Toki ogasunen baliabideak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan. Zergak eta tasak. 20. artikulutik 28. artikulura.
20. gaia: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateragina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua. 7. Artikulutik 16. Artikulura.



21. gaia: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateragina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua. 25. artikulutik 50. artikulura.

22. gaia: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako. 31. Artikulua.

23. gaia: Sektore publikoko kontratuei buruzko 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Kontratu motak. 12. artikulutik 18. artikulura.

24. gaia: Sektore publikoko kontratuei buruzko 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Kontratuaren adjudikazio-prozedurak. 131. artikulutik 187. artikulura.

25. gaia: Sektore publikoko kontratuei buruzko 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Baldintza administratibo partikularren agiria eta preskripzio teknikoen agiria. 121. artikulutik 130. artikulura.

26. gaia: Sektore publikoko kontratuei buruzko 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Kontratu txikiak. 118. artikulua.

27. gaia: Enplegatatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua. Administrazio publikoetako langile motak. II. titulua. I. kapitulua.

28. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa: datuak babesteko printzipioak eta pertsonen eskubideak. 4. artikulutik 18. artikulura.

29. gaia: Euskararen erabileraren normalizazioa herri-administrazioan. Printzipio orokorrak. Hizkuntza-eskakizunak. Hizkuntza-eskakizunen derrigortasuna. Hizkuntza-normalizazioko plana.

30. gaia: Europar Batasuneko Zuzenbidea. Instituzioen gaineko ikuspegi laburra: Kontseilu Europarra, Europar Batasuneko Kontseilua, Batzordea, Parlamentua eta Auzitegia. Egintza juridikoak: erregelamenduak eta zuzentarauak.

31. gaia: Administrazio elektronikoa. Herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izateko modua.

32. gaia: Administrazio elektronikoa. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa: egoitza elektronikoa eta interneteko ataria. Identifikazio-sistemak eta sinadura elektronikoa.

33. gaia: Administrazio elektronikoa. Artxibo elektronikoa. Administrazio-espeditzea.

34. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, lan arriskuen prebentzioari buruzkoa: xedea, aplikazio eremua.

35. gaia: 31/1995 LEGEA, azaroaren 8koa, lan arriskuen prebentzioari buruzkoa; eskubideak eta betebeharrak.

ZATI ESPEZIFIKOA

1. gaia: Proiektuak kudeatzeko metodologia prediktiboak: GANT, PERT.
2. gaia: Proiektuak kudeatzeko metodologia bizkorak. Lean metodologiak.
3. gaia: Informazioaren teknologien erosketak publikoak kudeatzea.
4. gaia: Sistemak eskuratzea; aukerak aztertzea, bideragarritasuna ebaluatzea eta erabakiak hartzea.



5. gaia: Hardware eta software ekipamenduaren arloan erabakitzeko oinarrizko aukerak.
6. gaia: Ordenagailu-programen babes juridikoa. Softwarearen legezotasuna eta kontrola egiaztatzeko bitartekoak.
7. gaia: Irisgarritasuna eta erabilgarritasuna. W3C. Diseinu unibertsala. Web diseinu moldagarria.
8. gaia: Sistemen elkarreragintasuna (1). Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala. Elkarreragingarritasunaren dimentsioak.
9. gaia: Sistemen elkarreragingarritasuna (2). Elkarreragingarritasunerako arau teknikoak. Dokumentu eta espediente elektronikoen elkarreragingarritasuna eta administrazio publikoen artean datuak trukatzeko arauak.
10. gaia: Sistemen segurtasuna (1). Arriskuen analisisa eta kudeaketa. Tresnak.
11. gaia: Sistemen segurtasuna (2). Segurtasun Eskema Nazionala. Segurtasun Eskema Nazionalera egokitzea. Segurtasun Estrategia Nazionala. CCN-STIC.
12. gaia: Azpiegiturak, zerbitzu komunak eta partekatuak, administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasunerako. CI@ve, Herritarren Karpeta, Erregistroen Interkonexio Sistema, Datuen Bitartekaritza Plataforma eta beste zerbitzu batzuk.
13. gaia: Prestazio handiko sistemak. Grid Computing. Mainframe.
14. gaia: Saisetako ekipoak. Zerbitzariak. Saisetako ekipoetarako eta zerbitzarietarako segurtasun-neurriak. Datuak prozesatzeko zentroak: diseinua, ezarpena eta kudeaketa.
15. gaia: PCko gailu pertsonalak eta gailu mugikorak. Gailu pertsonalen konektibitatea. Ekipo pertsonaletarako eta gailu mugikorretarako segurtasun- eta kudeaketa-neurriak.
16. gaia: Cloud Computing. IaaS, PaaS, SaaS. Hodei pribatuak, publikoak eta hibridoak.
17. gaia: Sistema handiak eta saietakoak biltegitratzeko sistemak. Multimedia-informazioa tratatzeko gailuak. Biltegitratzearen birtualizazioa. Babeskopiak.
18. gaia: Sistema eragileen kontzeptuak eta oinarriak. Bilakaera eta joerak.
19. gaia: UNIX-LINUX sistema eragileak. Oinarriak, administrazioa, instalazioa, kudeaketa.
20. gaia: Microsoft sistema eragileak. Oinarriak, administrazioa, instalazioa, kudeaketa.
21. gaia: Beste sistema eragile batzuen oinarrizko kontzeptuak: OS X, iOS, Android, z/OS. Gailu mugikorretarako sistema eragileak.
22. gaia: Eredu erlazionala. SQL lengoia. Datu-base erlazionalen kudeatzaileen arteko elkarreragingarritasunerako arauak eta estandarrak.
23. gaia: Webeko garapen-arkitektura. Front-end web garapena. Bezeroaren script-ak. Frameworks. UX. Zerbitzariko web garapena, datu-baseetarako konexioa eta sistema eta zerbitzuekiko interkonexioa.
24. gaia: Microsoft NET garapen-ingurunea.
25. gaia: PHP garapen-ingurunea.
26. gaia: Kode irekiko softwarea. Software librea. Oinarrizko kontzeptuak. Bulegotika-inguruneko aplikazioak eta web-zerbitzariak.
27. gaia: Adimen artifiziala: orientazio heuristikoa, adimen artifizial banatua, agente adimendunak.
28. gaia: Ezagutzaren kudeaketa: ezagutzaren irudikapena. Sistema adituak. Tresnak.
29. gaia: Informazio geografikoko sistemak. Oinarrizko kontzeptuak eta funtzionaltasuna.



30. gaia: Big Data. Datu-multzo masiboak atzitzea, aztertzea, eraldatzea, biltegitratzea eta ustiatzea. Hadoop inguruneak edo antzekoak. NoSQL datu-baseak.

31. gaia: Sare globalak erabiltzeko lengoaiak eta tresnak. HTML, CSS eta XML. Web nabigatzaileak eta estandarrekiko bateragarritasuna.

32. gaia: Merkataritza elektronikoa. Ordainketa-mekanismoak. Negozioaren kudeaketa. Faktura elektronikoa. Ordainketa-pasabideak.

33. gaia: Zifratzea. Zifratze-algoritmo simetrikoak eta asimetrikoak. Hash funtzioa. Notarriotza.

34. gaia: Aplikazioak eta inguruneak datuak babesteko araudiaren eskakizunetara egokitzea, segurtasun-mailen arabera. Zifratzeko eta ikuskatzeko tresnak.

35. gaia: Karaktereen ezagupen optikoa (OCR, ICR). Azterketa biometrikoa.

36. gaia: Informazio-sistemen bizi-zikloa. Bizi-zikloaren ereduak.

37. gaia: Informazio- eta komunikazio-sistemen plangintza estrategikoa. Informazio-sistemen plana.

38. gaia: Sistemen, erabilera-kasuen eta erabiltzaile-istorioen analisi funtzionala. Sistematik garatzeko metodologiak. Metodologia bizkorak: Scrum eta Kanban.

39. gaia: Alderdi ez-funtzionalak aztertzea: errendimendua, segurtasuna, pribatutasuna.

40. gaia: Sistemen diseinu arkitektonikoa. Hedapen-diagramak.

41. gaia: Softwarea diseinatzeko teknikak. Geruzakako diseinua eta diseinu-patroiak.

42. gaia: Sistemen garapenean prototipoak egitea. Aplikazioen interfazeak diseinatzea.

43. gaia: Sistematik mantentzea. Mantentze prediktiboa, egokitzailea eta zuzentzailea. Mantentze-lanen plangintza eta kudeaketa.

44. gaia: Informazio-zerbitzuen kalitatea. EFQM eredu eta ISO 9004 zerbitzuetarako gida.

45. gaia: Dokumentuen kudeaketa. Edukien kudeaketa. Ezarpen handiko CMS eta DMS teknologiak.

46. gaia: Informazioa berreskuratzeko sistemak. Informazioa kontserbatzeko politikak, prozedurak eta metodoak.

47. gaia: Sortzen ari diren teknologiak. Kontzeptua. Sailkapena, alderdi juridikoak eta aplikazioak.

48. gaia: ISOren sistema irekien interkonexioko erreferentzia-eredua: arkitektura, geruzak, interfazeak, protokoloak, helbideratzea eta bideratzea.

49. gaia: Eraldaketa digitala eta 4.0 industria: hiri adimendunak. Gauzen Internet (IoT).

50. gaia: Datuak transmititzeko sare publikoak. SARA sarea. sTESTA sarea. Sareak planifikatzea eta kudeatzea.

51. gaia: Segurtasuna sareetan. Prebenitzeko eraso eta tresna motak: suebakiak, sarbideen eta intrusioen kontrola, teknika kriptografikoak, etab. Komunikazio mugikorretarako berariazko neurriak.

52. gaia: Segurtasuna aplikazio-mailan. Web zerbitzuen, datu-baseen eta erabiltzailearen interfazeen eraso motak eta babesa.

53. gaia: Zibersegurtasuna. Zibersegurtasuneko estrategia nazionala.

54. gaia: Sistema korporatiboetarako urruneko sarbidea: identitateen kudeaketa, single sign-on eta telelana.

55. gaia: Sistematik eta datu-zentroak birtualizatzea. Lanpostuen birtualizazioa. Windows terminalen eta Linux zerbitzarien maketak.